

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Eki-erdialdea 2023/11/14

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Auzokide bat kexu da banda entseatzen den lokalaren leihoak zabalik egoten direlako eta horrek eragozpenak eragiten dituelako. Gainera, entseguen ondoren pertsona batzuk zerbait hartzen geratzen dira, eta errespetu falta erakusten diete bai agintariei bai bizilagunei.	Halako kexak jaso direnean, bandaren arduradunei igorri zaizkie, neurriak har ditzaten. Antzeko egoerak errepikatzen badira, Udaltzaingoiari deitu beharko zaio, eta egiaztatzen joango dira.
Hirigintza	Bizilagun bat kexu da Arragueta kaleko obra-hondarreatatik.	Arraguetako eraispena sustapen pribatukoa da. Udalak behin eta berriz eskatu duelako kendu dituzte obra-hondarrak. Jabeak atzeratzen ari ziren.
Zerbitzuak	Bizilagun bat kexu da lurrian dagoen zaborra ez delako jasotzen Bittor Sarasketa kalean. Kexu da, baita ere, pertsona batzuk ez daudelako batere kontzientziazatuta zaborra botatzeko orduan.	Mankomunitatetik erantzun zitzaien puntu hori konfliktiboa dela eta ez dela behin bakarrik pasatzen hortik, baizik eta behin baino gehiagotan. Adierazi zuen, halaber, hainbat gunetan antzeman direla halako egoerak; normalean komertzioa eta ostalaritza dauden inguruak izaten dira. Pertsona horrek gehitu zuen ez dela euren arazoa bakarrik, eta partikularren arazoa ere badela. Jakinarazi zitzaion, baita ere, Ingurumeneko teknikari bat dagoela gune horietara joan behar duena, kontzientziazio-lana egitera.
Udaltzaingoa	Bizilagun bat kexu da udaltzain gutxi daudelako auzoan.	Ahaleginak egingo dira maizago patruilatzen inguru horretatik, bai polizia-ibilgailuan bai oinez.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Eki-erdialdea 2023/11/14

Saila Laburpena

HIRIGINTZA/ ALKATETZA	Bizilagun bat kexu da NEINOR enpresak El Cascoko obretan eragindako kalteengatik. Iskanbilak izan dituzte ACR enpresarekin eta bertako langileekin.	Obren exekuzioak, tamalez, kalteak eragiten ditu, eta, are gehiago, eraikinak dituztenean aldamenean. Sustatzailearen ardura da berak eragindako kalteei erantzutea; horretarako egiten dira arrakalen protokoloak. Arazo handienetako bat da kalteen konponketa luzatu egiten dela eta kalte hori pairatzen dutenek sufritzen dutela. El Cascoko obren kasuan, Udala saiatu da bitartekaritza-lanak egiten, baina arazoa konplexua da, aseguruiei-etxeen mende dagoelako.
Hirigintza	Auzotar bat kexu da aldi baterako aparkaleku-plazak kendu direlako. Aparkatzeko leku gutxi dago.	Ahaleginak egiten dira obregatikoko aparkaleku-plazak kentzeak eragiten dituen kalteak minimizatzeke, baina beharrezkoa da plazak behin-behinean kentzea.
Alkatetzak	Bizilagun bat kexu da Orbea kiroldegia egoera txarrean dagoela-eta: spa, gimnasioa...	Gimnasioko hobekuntzak inplementatzen ari dira: Aldatu egin dira “mankuernak” edo halterak lagatzeko euskarriak; aldatu egingo da zorua; birkokatu egin behar dira indarra lantzeko makinak, eta makina aerobiko gehiago eskuratu behar dira urtea amaitu baino lehen... Gainera, datorren urtean inbertsio handia egin behar da SPAn, eta indartzen ari dira instalazioaren mantentze-lanak.
Zerbitzuak	Bizilagun baten kexa: Eibar zikin dago, txiza usaina, txakurren kakak, zikinkeria.	Mankomunitateak hauxe dio: 2. MAKINA ESKOBATZAILE. MAKINA TXIKI 1 AUZOETAN . Gaia. Hobekuntza-plana. Espaloiak garbitzeko makina bat. Ureztatzeko-kamioia.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Eki-erdialdea 2023/11/14

Saila	Laburpena	
		Hidrogarbitzaileak. Mankomunitateak uste du errekurtsio mekanikoetan —azkenean horrek ematen du kalitatea— herria hobetzen ari dela.
Hirigintza	Bizilagun batek galdetu du ea teknikariren bat pasa daitekeen Pagaegi kaleko etxabeetatik. Etxabe horietan kalteak gertatu dira, obrak direla eta.	Pagaegiko etxabeak Udalarenak dira, eta Udalak jarraipena egin die obrek eragindako kalteei.
Udaltzaingoa	Kexa: ibilgailuak abiadura handian doaz Matxaria aldetik.	Neurriak hartzea aztertzen ari dira ibilgailuen abiadura murrizteko.
Obrak.	Auzotar batek galdetu du ea Jardiñetako igogailua egin behar den.	Obrak 2025ean egitea dago aurreikusita.
Hirigintza	Auzoko batek Arragueta 16 zk.ko egoerari buruz galdetu du.	Arragueta 16 zk.ko eraikina Udala eskuratzen ari da, eta aurreikuspena da hura bota eta ingurua urbanizatzea, Bidebarrietaren atzealdearekin konektatuz. Aurki egingo da obra hori, Arragueta kaleko zabaltze-lanekin batera.
Udaltzaingoa	Kexu da Matxarian dagoen segurtasun faltagatik, eta ibilgailu batzuetan erasoak gertatu direla.	Udaltzaingoa saiatzen da Matxaria bezalako tokietan zaintza-lanak indartzen.
Zerbitzuak	Proposatzen du paperontzi bat jartzea Aldatzera igotzen den igogailuan.	Ez da beharrezkotzat jotzen; izan ere, igogailuaren sarbidearen ondoan, Julian Etxeberriatik, zaborren edukiontziak daude, eta igogailuaren irteeran, Aldatzen, jada jarri zen paperontzi bat.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Eki-erdialdea 2023/11/14

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Bizilagun bat kexu da Untzagako baldosak labainkorrak direlako.	Obrak egiteko materiala aukeratzean, materiala ez-labainkorra izan dadin saiatzen dira, bereziki, Untzaga bezalako lekuetan (non hainbeste jende dabilen); esan behar da materialak betetzen dituela baldintza horiek eta ez dela labainkorra, baina oinetako desegokiak erabiliz gero, irristatu egin daiteke.
Udaltzaingoa	Bizilagun baten kexa: Jardiñetan tamaina handiko kamioiak sartzen dira eta gero ezin dute aurrera egin. Hor geratzen dira kateatuta, ez aurrera, ez atzera, eta azkenean kotxeak eta balkoiak apurtzen dituzte.	Laster debeku-seinale handiagoak jarri behar dira, halakoak saihesteko.
Alkatetzak	Bizilagun batek galdetu du ea udaltzain gutxi egotea diru faltagatik edo pertsonal kualifikatu faltagatik ote den; eta ea garbitasun falta diru faltagatik edo kale-garbitzaileen esfortzu faltagatik.	Udaltzaingoa beteta daude Udalaren lanpostu-zerrendan jasota dauden ia lanpostu guztiak. Egia da errotazio handia dagoela, eta une batzuetan, agian, ez direla behar genituzkeen plaza guztiak beteta egoten, pertsonal faltagatik. Garbiketari dagokionez, Udalak behin eta berriz eskatzen dio Mankomunitateari egiten den garbiketa-lana aproposa izan dadin eta herriaren premietara egokitua.
Zerbitzuak	Arragueta 25 zk.ko bizilagun bat kexu da kale horretan arratoiekin eta izurriteekin dagoen arazoagatik, obra-hondakinak direla-eta.	Desratizazioaren arduradunari abisua pasatu zitzaion eta arazoa konpontzeko beharrezkoak ziren neurriak hartu ziren.
Hirigintza	Bizilagun batek jakinarazi du zain daudela fatxadak obrak egiteko, inguru horretan obra gehiegi daudelako. Galdetu du ea itxaron behar duen ala ez. Ez du uste obra egiteko baldintzarik onenak direnik.	Fatxadak konpontzea ekimen pribatu bat da, sustatzaileak egiten duena, eta, normalean, Udalak ez du trabarik jartzen

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Eki-erdialdea 2023/11/14

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Bizilagun batek eskatu du Udalak azter dezala Arraguetako orubean parking bat egiteko aukera.	hasierari dagokionez (hori ba, aztertzen du ea zer eragin izan dezakeen inguruan, obra-baldintzak jartzeko orduan). Arraguetako orubea jabetza pribatukoa da eta jabe asko dira. Udala harremanetan jarri da haiekin, espazioa behin-behinean erabiltzea eskatzeko, baina haietako batzuek ezetz esan dute; hortaz, erabilera publikoa ez da bideragarria.
Hirigintza	Galdetu dute ea Ardantzan parkingik egin behar ote den (han dagoen parkea kenduz) eta ea Aldatzeko jaitsieran piboteak jarri behar diren.	Proiektu bat dago, baina epe ertainera ez dago aurreikusita egikaritzea.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du kontuz ibil daitezela edukiontziak jasotzen, zeren gero hain gertu jartzen dituzte espaloitik ezen ezinezkoa den pedala erabiltzea. Gainera, zabor organikoaren poltsak kalitate txarrekoak dira.	Mankomunitatearen erantzuna: 2025eko proiektua: elementu zentratzaileak jartzea errefusarako eta BIOarako frakzioetarako, ontzien eta paper eta kartoen albo-kargako edukiontzietan jarritakoak bezalakoak. Poltsen gaiari dagokionez, esan behar da partidaren batean gerta litekeela poltsa akastunak egotea, edozein horniduratan gertatzen den bezala. Erabiltzaileek beti dute aukera poltsak eskatzera joateko Mankomunitateko bulegoetara. Adierazi dute poltsek zehaztapen tekniko jakin batzuk dituztela eta erresistentzia-probak egiten dituztela entregak baliozkotzeko.
Zerbitzuak	Bizilagun bat kexu da usain txarra dagoelako Errebaleko garajeetan eta apurtu egiten delako ur-isuriak saihesteko babesgarria.	Usain txarrarena aldian behin gertatzen da, akats bat dagoenean Errebalen sortzen den ura xurgatzeko ponpetan.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Eki-erdialdea 2023/11/14

Saila	Laburpena	
		Ez da ohikoa izaten. Ur-isuriak saihesteko babesgarriari dagokionez, mantentze-lanak egiten dira.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek galdetu du ea nola gestionatu behar den Pagaegi eta Estaziño inguruko trafikoa.	Ziurrenik tren-estazioa Pagaegirekin lotuko duen kale berria oinezkoentzat izango da.
Hirigintza	Bizilagun batek galdetu du ea eperik dagoen anbulatorioko parkea berrurbanizatzeko.	Asmoa da anbulatorioko parkea eta Julian Etxeberria berrurbanizatzeko obra bi zatitan egitea, kontuan izanda proiektuak duen kostua. Aurreikuspena da parte bat 2025. urtean egitea eta beste partea 2026. urtean. Ikusi beharko da zer obrek duten lehentasuna eta zer baliabide dauden.